




**FANZINEA  
EGUNEROKO  
ARRAZAKERIAK**



## AURKEZPENA

*Testua eta edizioa: Munduko Medikiak*

*Ilustrazioa eta diseinua: Elizabeth Montero (IG: @laflordeltamarindo)*

**Esleipen ez-komertziala.**

*Fanzine hau partekatzeko, banatzeko eta publikoki komunikatzeko askatasuna duzu, modu ez-komertzialean eta haren sorkuntzan eta ekoizpenean esku hartu duten pertsoneri erreferentzia eginez.*

*Gorputzei buruz hitz egiteko, garrantzitsua da gure gorputzak katalogatzen eta araupetzen dituzten sistemei buruz hitz egitea. Fanzine honetan, arrazakeriaz jokatzeko den zenbait egoera arrunt aurkituko dituzue, eta dei bat da, geure burua zalantzan jartzeko, geure jarrerak eta portaerak berrikusteko eta barnean ditugun pentsamenduak identifikatzeko; arrazializatutako eta migratutako gorputzetan zer inpaktu mental eta emozional dituzten kontuan hartu gabe kontatu izan baitira beti.*

*Autokritikarako ariketa gisa proposatu da. Badakigu sumindu egingo gaituela agian, deseroso sentiaraz gaitzakeela... eta hala behar du! Justizia sozialean kolektibo eta norbanako gisa dagokigun ardura hartzeko, zer leku betetzen dugun ezagutu eta aitortu behar baitugu.*



An illustration of two women in a room. On the left, a woman with long brown hair, wearing a pink sleeveless dress and purple flats, stands next to a large brown vase containing a green plant with large leaves. She has her arms outstretched. On the right, a woman with dark skin, wearing a red and orange patterned dress and black flats, holds a small potted plant in a blue and white patterned pot. She has a red flower in her hair. The background consists of a blue wall with yellow rectangular panels. A blue stool is visible in the bottom right corner.

Nongoa zara?

Baina... Bilbo-Bilbokoia?

Bilbokoia

*Oihartzuna duten galderak, Lucía Mbomioaren hitzetan, galdera errepikakorrek dira, pertsona beltz guztiak migratzaileak direla uste izateagatik sortuak; hala, haien identitatea ukatzen da, beltza eta euskal herritarra izatea bateragarria ez balira bezala.*

*Pentsatu al duzu inoiz zenbat aldiz galdetuko zioten hori eta zein neketsua izan behar duen norbaitek egunero zu zalantzan jartzea?*


*Ez da jakin-mina, arrazakeria da.*




Berriz ere berandu zatoz eskolara

Gelditu al zaitu poliziak inoiz?

Ez, baina norbait gelditzen dutenean, zerbait egin dutelako izaten da.



Ez da egia, beltzak garelako gelditzen gaituzte gu.



**Gure gorputzak bortitz, kriminal eta susmagarritzat hautematen dituzte. Kaleak ez dira zurientzat bezain egokiak bizitzeko.**

*Pentsatu al duzu inoiz zer nolako ibilbideak egin behar dituzten pertsona beltzek toki batetik bestera joateko, poliziak gelditu ez ditzan?*

**Ez dituzte ausaz gelditzen, arrazakeriatik da.**



**Tinder:**

-Inoiz ez dut emakume beltz bat probatu, oso kartsuak zarete.

-Blokeatuta

**Grindr:**

-Macho27

Ondo pasa nahi dut. Giro ona, erlaxazioa, sexu desinhibitua.

Etorri eta gozatu.

Ez marilokarik, ez beltzik, ez curryrik.



**Gorputz beltzak ez dira probatu beharreko objektu edo esperientziak.**

*Pentsatu al duzu inoiz zer aurreiritzi eta iruditeria dituzun barnean pertsona beltzekin harremana duzunean?*


**Gorputz beltzekiko sexu-grina justifikatzea, exotikotzat hartzea eta gizatasuna kentzea arrazakeria da.**



Bertan dugu otsaila,  
norbaitek badu ideiarik inauterietarako?

Bai, nik badaukat bat.

Zer iruditzen gelaka egiten badugu,  
eta afrikarrez, txinatarrez, mexikarrez  
eta abarrez mozorrotzen bagara?



Nire gorputza, nire larruazala eta nire arropa  
ez dira mozorro bat, eta nire adierazteko  
moduak eta istorioak ez dira txiste bat

*Pentsatu al duzu nola sentitzen den haur  
arrazializatu bat halako zerbait entzuten  
duenean?*

**Ez da kultura-aniztasuna agertzea, arrazake-  
ria da. Dibertsitatea hortxe dago lehendik.**

Zerrenda irakurriko dut. Izen batzuk ezin ditut ahoskatu, beraz, pertsona horiei orria hurbilduko diet, ondo dauden esan diezadaten.



**Garrantzitsua da izenak izendatuak nahi duen moduan esatea. Ez dago izen zailik, interes falta baizik. Ez da lan handia galdetu eta entzutea.**

*Pentsatu al duzu zer esanahi duen norbaiten izena esan edo ez esateak, eta nolako inpaktua izan dezakeen izendatu ez dituzun pertsonen osasun mental eta fisikoan? Pentsatu al duzu zer ideia sustatzen dituzun ikasgelan, norbait izendatzen ez duzunean?*

**Izen bat ez aipatzea, gaizki esatea edo aldatzea arrazakeria da.**



Bua, lehengo egunean okindegiko ilaran nengoen, neskari presa neukala esan nion eta mutur beltza jarri zidan.

Hori esamolde arrazista bat da. Zer koloretakoak jartzen gara haserretzen garenean?

Tira, beltza den lagun bat daukat, ez atera testuingurutik, beti esan izan da horrela.

**Pertsona beltzekin harremana izateak ez du esan nahi aurreiritzirik eduki ezin duzunik. Beti hala esan izanak ez du esan nahi ondo dagoenik.**

**Zurien sentiberatasunak elkarrizketa oztopatzen du. Sumindu, haserrarazi edo mintzen bazaitu, hartu zure denbora orekatu eta esandakoa kudeatzeko. Norbere burua berrikustea funtsezkoa da justizia sozialerako eta jendea ondo tratatzeko.**

*Pentsatu al duzu nola betikotzen dituzun desparrekotasunak?*

*Pentsatu al duzu nolako neke mental eta emozionala eragiten duen behin eta berriz gauza bera azaltzeak? Eta zu defentsiban jartzeak edo gaia aldatzeak?*

**Urruntzea eta komentario purtzil bat justifikatzea arrazakeria da.**





# Mugimenduak LGBTIQA+

Zer iruditzen Marsha P. Johnsonen inguruan hitz egiten badugu?

Berriz ere zure kontuekin. Ez dago astirik, ezarritako edukia landu behar dugu. Nahi baduzu, zure aldetik begiratu.


**Errepresentazioak eta erreferenteak garrantzitsuak dira. Norbere erreferenteen inguruan irakurtzea, halakoak ikustea, ukitzea eta mugitzea lagungarria da norbere burua identifikatzeko eta aurkitzeko.**

*Pentsatu al nola kontatzen diren istorioak testuliburuetan, nor eta nola agertzen diren, eta nortzuk ezabatu diren sistematikoki?*

*Pentsatu al duzu zer nolako inpaktua duen horrek identitateak eraikitzeke orduan?*

**Erreferente zuriak soilik irakastea arrazakeria eta zurien gailentasuna da.**

Emango eguzkitako krema?



Ez dauka graziarik.

Zertarako, beltzak ez zarete erretzen eta... Kar-kar!

Txantxa bat da, ezin zaizue ezer esan, oso sentiberak zarete.



**Egoera jakin batzuk bizi ez badituzu ere, horrek ez du esan nahi existitzen ez direnik. Norbaiten bizipenen garrantzia txikitzea, eta bizipenok gutxietsi edo ukatzea zurien pribilegiotik emandako erantzunak dira.**

*Pentsatu al duzu nolako inpaktu emozional eta mentala izan dezaketen pertsona arrazializatuengan egunero jasotzen dituzten komentario eta esamoldeek?*

**Ez da adierazpen askatasuna, arrazakeria da.**